



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2017KO URRIAREN 31KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Premiazko bilera berezia.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2017.10.31
Ordua: Goizeko 13:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.
Zinegotziak:
Mentxu Peña Lizarazu and.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Iñigo Sarrias Zoco jn., lanagatik.
Igor Ugalde Salazar jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

1.-Kontu Korrontearen kreditua hartzeko onespena.

Ikusirik aztergaiaren premia eta beharra, zinegotziak, aho batez, bilera egitea erabaki dute.

1.-KONTU KORRONTEAREN KREDITUA HARTZEKO ONESPENA.

Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendaria nagusiak emandako 882/2017 ebazpenaren bidez, 2017an abeltzainzako toki azpiegiturak sortu eta hobetzeko laguntzak emateko deialdi berezia onetsi zuen.

Udal honek obra hauek egiteko diru laguntza eskaera aurkeztu zuen (Basarteak egindako proiektuaren bidez): bi oztopo kanadar jartzeko (Meaka eta Sagargoxo alderdietan), Larrainbora alderdiko oztopo kanadarra moldatzeko eta Madaleneko Bordako bidean hormigoia botatzeko.

Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak emandako 1023/2017 ebazpenaren bidez Arantzako Udalarari diru laguntza ematen zaio eskatutako obrak burutzeko.

Kontuan hartuz lanak bukatuak eta justifikatuak egon behar dutela urriaren 31rako.

Kontuan hartuz proiektuaren gastua hauxe dela:

-I.M.Arrisko Igeltseritza S.L.: 39.852,50 euro, BEZ barne.

-Basartea: 1.358,67 euro , BEZ barne.

-Basartea: 1.358,67 euro, BEZ barne.

Ikusirik Caixabank S.A. enpresak egindako proposamena, 41.000,00 euroko kreditua emateko aipatutako lanak ordaintzeko.

Aztertu ondoren kredituaren baldintzak eta ezaugarriak.

Ikusirik Udaleko Idazkariaren aldeko txostena, gaur egungo zorra ez duelakoz gauditzen gasto arrunten %110, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Caixabank S.A. enpresaren 41.000,00 euroko kontu korrontearen kreditua poliza onartzea, bertan aurkeztutako baldintzen arabera, eta Nafarroako Gobernuko diru laguntzarekin amortizatzeko baldintza pean, laguntza itzuliz kobratu bezain laister.

2) Alkateari ahalmena ematea poliza sinatzeko.

3) Arantzako Udaleko Idazkaria eta Kontuhartzaileari ahalmena ematea horren fedea emateko.

4) Arantzako Udaleko Idazkaria eta Kontuhartzaileari ematea maileguaren kontuhartzea lanak egiteko.

Bertzerik gabe, goizeko 13:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Mentxu Peña Lizarazu and.

